

Ondo  
pasa  
oportunitan!

GURE  
BERTSOAK



## GURE AZKEN URTEA ESKOLAN

*Doinua: Maritxu nora zoaz*

1

Laster oporrak datoz  
iritsi da uda  
bukatu da estresa,  
goizetan logura...  
Urte sasoi honetan  
gabiltza gustura  
bizitzaz gozatzeko  
garaia heldu da.

2

Zaratamon ikasten  
denbora luzea  
bizi izan ditugu  
poza ta oinazea.  
Pena da gure herriko  
eskola agurtzea  
hura izan da gure  
bigarren etxea.

3

DBH ikasten  
herritik atara  
beharko dugu denok  
eta behar bada  
gehienak gatozenez  
Arrigorriagara  
zuen ikaskideak  
bihurtuko gara.

4

Eta nola klasean  
batuko gaituzten  
hasiko gara zuek  
goizero ikusten  
nahiz ta irakasleek  
ez diguten uzten  
elkarri dakizkigun  
txantxak erakusten.

5

Estresatuko gara  
apur bat gehiago  
azterketaz ta lanez  
gainezka zeharo.  
Erantzunkizuna da  
baina argi dago:  
nagusitzen ari naiz  
eta harro nago.

6

Guztiok heldu gara  
behar zen mugara  
gure bertso sortaren  
amaiera bada.  
Agur ondo ibili,  
joan hondartzara  
irailean berriro  
ikusiko gara.

## AZKEN EGUNA HELDU DA

*Doinua: Ama begira zazu*

1

Azken eguna\_heldu da  
eskola honetan,  
asko eskertzen dugu  
laguntza benetan.

2

Bi urterekin sartu  
ginen eskolara,  
eta hamabirekin  
joan behar gara.

3

Guri\_ipuina kontatzen  
zigun andereinok,  
baina\_orain irakurtzen  
badakigu denok.

4

Lehen txokoetan geunden,  
orain banatuta,  
eta azalpenetan  
gu gaude galduta.

5

Bihurrikeriak egin  
ta asko ikasi,  
koadernoak erreta  
berriz ere hasi.

6

Bisita egitea  
pentsatua dugu  
eta lagun berriak  
egingo ditugu.



## ESKERRIK ASKO

*Doinua: Furra-furra*

*Agur, agur,  
joango gara,  
ta ez dugu bueltatu nahi  
berriz eskolara.*

1

Eskerrik asko maisu  
eta andereino  
zuei esker heldu  
gara gu honaino.

2

Asko pasa zarete  
guri frogak jartzen  
eta gainera guri  
gutxiak asmatzen.

*Agur, agur,  
joango gara...*

3

Hemen gauza mordoa  
ikasi ditugu,  
ez duguna hobetu:  
burua seguru...

4

Andereinoa joatean  
festa bat klasean:  
paperezko hegazkinak  
ditugu airean.

*Agur, agur,  
joango gara...*

5

Bronkak jasotzen gaude  
ia egunero,  
ez dago arrazoirik  
pentsatu ezkerero...

6

Hau azken bertsoa da,  
agur irakasle,  
gu beti izan gara  
Athletic-en zale!

*Agur, agur,  
joango gara...*

## INSTITUTORA GOAZ

*Doinua: Baldarrak*

*Institutura goaz,  
zer gertatuko da?  
Hainbeste klaserekin  
ez goaz inora...*

1

Institutoan daude  
pila bat makarra,  
leihotik botatzea  
nahi dugun bakarra.

2

Saio aspergarriak,  
argiak begian,  
lokartu\_gingo gara  
klaseen erdian.

3

Orain nagusienak,  
gero txikienak,  
nolako umeak garen  
ematen problemak...

*Institutura goaz,  
zer gertatuko da?  
Hainbeste klaserekin  
ez goaz inora...*

4

Irakasle gehiago,  
azterketa pila,  
nota guztiak dira  
zero borobila...

5

Irakaslea faltan,  
nolako zortea,  
nahi duguna bakarrik  
zaintza izatea.

6

Batzuk ez dugu joan nahi,  
beste batzuek bai,  
bai esaten dutenak  
daude oso alai!

*Institutura goaz,  
zer gertatuko da?  
Hainbeste klaserekin  
ez goaz inora...*

## AI OPORRAK, UMEON ALTXORRAK

*Doinua: Ai Zapotxin*

*Ai oporrak  
umeon altxorrek,  
gero klaseak  
benetan gogorrek.*

1

Ekainak 18,  
bukatu klaseak,  
oporrek hasten dira  
ta dira luzeak.

2

Koaderno guztiekin  
San Juaneko sua,  
orri denak botata  
ez dugu pisua.

*Ai oporrek  
umeon altxorrek...*

3

Familia ikusi,  
hori da lehena,  
batera egotea  
beti da onena.

4

Eguzkia hartzera  
lurrean botata,  
erlaxatu ezinda  
badago zarata.

*Ai oporrek  
umeon altxorrek...*

5

Festak hasita gero  
lagunekin egon,  
buruhandiak daude  
korrika edonon.

6

Oporrek bukatzeko  
piztinara joanda,  
ikasle guztiekin  
ikasteko txanda.

*Ai oporrek  
umeon altxorrek...*

ZARATAMOKO ESKOLA



ARRIGORRIAGAKO ESKOLA